

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0047	Biztanleen Udal errolda: Kontsulta eta erreklamazioa hautesleen erroldaren aurrean
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Hautesleen Erroldan edozein datu aldatu ahal izateko, Amorebieta-Etxanoko Udalera zuzendu beharko da, eta Biztanleen Erroldan dagoekion aldaketa izapidea egin. Hautesleen Erroldan egindako aldaketak Hautesleen Erroldako Bulegoari jakinaraziko zaizkio, eguneratzeko.

Hauteskunde prozesu bakoitzerako, Amorebieta-Etxano Udalak, Hautesleen Erroldaren banakako kontsulta bideratuko du, datuen egiaztapenerako

NORK ESKA DEZAKE?

18 urtetik gorako edozeinek.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Erreklamazio formularioa
- **Erreklamazioa**, hauteskunde deialdi bati dagokion Hautesleen Erroldako **jende aurreko aurkezpen epealdian egiten bada**, erreklamazio hori jaso ahal izateko, nortasuna egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da (NAN, bizileku txartela edo pasaporte)
- Aldaketak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

NON ESKATZEN DA?

- **Aurrez aurre:**
 - [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da inolako tasarik edo prezio publikorik ordaindu beharko.

PROZEDURAREN EPEA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzkoa](#) 39. art.
- -

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Hautesleen Erroldan kontsulta egiteko datuak eman
2. Kontsulta egin
3. Aldaketak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu
4. Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu, Udalaren aldetik
5. Eskaria eta dokumentazioa erregistratu.
6. Egiaztagiria eman interesatutako pertsonari.
7. Erreklamazioa Hautesleen Erroldako Bulegoari bidali, nortasuna egiaztatzen duen agiriaren kopiarekin.

NORK ONARTU BEHAR DU?

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Zerbitzu Orokorrak - Idazkaritza

OHARRAK

- Hauteskunde prozesu bakoitzerako, indarrean dagoen Hautesleen Errolda, deialdia egin aurreko hilabeteko lehen egunean itxiko da.
- Deialdi jakin baterako Hautesleen Errolda jende aurrean dagoen bitartean, erreklamazioak Hautesleen Erroldako Bulegoan ere aurkeztu ahal izango dira.

Informazio gehiago

estatistika@amorebieta.eus

Udala: 94.630.00.02